


# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

276n. zenbakia  
iraila-dagonilla 2002



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



Disco metálico con Escudo Heráldico y leyenda en relieve que dice: DEUSTOKO UDALA. Hallado 16 unidades por el actual propietario de la Villa nº 97 de la Clavada Jardín, residencia hasta su fallecimiento de D. JESUS GASTAÑAGA OLABARRI que fue el último secretario de la extinguida Antigua Corporación de DEUSTO. Se trata de un disco similar al que llevan cosido los guardias municipales en sus trajes y botinas de uniforme. Una unidad se ha entregado para su conservación en el MUSEO ARQUEOLÓGICO, Bilbao, 3-04-2002.

**Ona emen burdiñezko txirriña eta gainean  
auxe diñoan irakurgaia: Deusto'ko UDALA.  
Olako 6 aurkitu dira Baratz-Uriaren 97n.  
atean. Antxe bizi izan zan GAZTAÑAGA TA  
OLABARRI'tar JESUS, Deusto'ko Eleiz-  
Ate galduaren azkenengo idazkaria. Olakoa  
daroe gaur udaltzaiñak euren jazki ta txape-  
letan. Olako bat ARKEOLOJI-MUSEOA'N  
dago zaintzeko eroanda. Bilbao'n 2002-04-03**

# EUSKALERRIAN EUSKERAZ

A

## 2001-2002 IKASTURTEA

OGEI TA AMALAU GARRENA  
BIZKAIERAZ  
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

**Ordaña:** 125 €

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 7AN

34.<sup>2</sup> CURSO DE EUSKERA BIZKAINO  
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 125 €

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 7 DE OCTUBRE

# ZERGATIK BILLATU ARAZOAK EZ DAGOZAN LEKUAN

"Zeragatik billatu arazoak ez dagozan lekuan" izan zan irurogei eta amarreko amarkadan erri onetako auzokoen ordezkariak orduan Bilboko Gotzaina zan Larrea Monsinoreari erri onetako abadea zan (eta dan) Jaime Larrinaga Yurrebaso beste erri batera ez bidaltzeko erabili eban leloa. Orrela amar urteko abadeak aldatzeko elizbarrutiko arauri eusten jakon.

Uxe da pasa dan igandean, 2002ko ekainaren 9an, El Mundo egunkarian agertu zan guzurrez beteriko artikulua desmontatzeko leenengo puntu garrantzitsua.

Onekin erakusten da Euskal Elizak ez dituela bakarrik abertzaleak sustatzen eta Larrinaga Jaunaren "giltzapetzea" berak gustora onartu dauala.

Testuarekin batera agertzen dan argazkia 1969koa dela diño eta berak ogeita amairu urte pasa ondoren, ideia berak defenditzen jarraitzen dauala. Garai artan, Eliza Nazional Katolikoa zan, besoa altxatuta eukana, palioiduna, gurutzada santukoa, Jaungoikoaren graziagatik kaudilloduna.

Onen ondorioz gure abadeak erregimen onen (zorionez desagertua) utsunea somatzen dauela dirudi.

Beste artikulua batean be "La Razon" egunkarian argitaratua 2000ko urtarrilaren 31n, "lau aldeetatik" euskalduna izatearren arro zentitzen zan, baiña garai ilun orretan inork ez eutsan ezer entzun, bere askatasuna arriskuan jarritz, gizarte plural baten alde "dogmatismo" eta "absolutismo" guztien urrun agertzeaz, ezta euskarak pairatzen zuan zapalkuntzaz be. Ain zuzen be, artikulua orretan Maruri-Jataben auteskundeak zelan egiten ziranari buruzko saine bitxia kontatu eban, eta esan bear da orain arte ez dala ezelako istilurik sortu.

Ez dakigu zein erriaz diardun, esaten dauenean trafiko-seinaleak gaztelazko itzak estalita dituela eta presoak barriz alkartzearen aldeko pintadak dagozela... Artikuluan gurearekin zer ikusirik ez dauan bat deskribatzen dau. Gure udalerrria baketsua, solidarioa, lasai, eta adeitsua da.

Ez dago pintadarik ezta kartelik be, ez gara etsaiak; geiago, zinegotziak askotan ibiltzen dira solasean erriko tabernetan abade jaunagaz. Udala askotan batu da abade jaunagaz eta Batzorde Pastoralagaz guztion intereseko arazoak konpontzen saiatzeko.

Udalak eta erritarrok eredu zko portaera izan eben eliza konpentzeko lanak egin ziranean eta auexen kontribuzioei esker, gaur egun, danok gozatu al dogu guztiz berriztatuko elizaz, lorategi zainduak dituena, sarrera egokiak eta erai-kuntza nabarmentzen daben gaueko argiak.

Maruri-Jatabeko erritar eta eliztarren esku izten doguz, onekin batera doan "El Mundo" egunkariaren artikuluan abade jaunak adierazten dauzan jarrerak eta deklarazioak merezi dituen iritziak eta epaiak.

Aldi berean, bakearen alde, eta alkar bizitza normalizatearen aldeko konpromezua berresten dogu, beti be tolerantzia eta idea guztiak errespetatuz, denok, libreki, zer izan nai dogun erabakitzeko gure erriaren etorkizun ohea lortu arte.

**Maruri-jatabe, 2002ko ekainaren 18an**

UDALBATZA



**Oarra:** Berbarik berbara agertzen dogu Maruri-Jatabeko udaleraren agiri au, gure idazkera-egokituta, agiri onek diñoanaz oso-osoan batera gatozelako (Zer: idazkola).

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (amazortzi euro) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 € Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

---

# EUSKARA 'REN IXILEKO ESKUTAPENA

---

Euskeraren eskutapena Askatasunean ezarrita dago iñungo zalantza barik. Aldiko leiñu, sendi edo gizartearen bizi-ekintzako on-alegiñen bitartez asita, bera dalako leenengoetatik EUSKALERRIAREN BIDERAKUSLEA. Argi ta agiri-agirian daroa danon aurrean Askatasunaren Ezkutapena.

Munduko bizi onetan argi ikusten dana, apur-bat izkuntzaren aldetik sakon begitu ez gero, garrantzi aundiko gauza bat da: gizon/emakume, sendi, auzo, lurralde eta aberritarren jardunkeratan zelan ibiltzen diran euren bizi-jokaldietan, oituragaz, legeaz, erlijjiñoan, izkuntzagaz, ordezkartizan, askatasunagaz eta azken baten curen artean zelako erreztasunagaz bizi diran.

**OITURAGAZ:** Mundu eta Europa onetan daukaguzan espatak beartuta, nortasun-gabeko laterri onein alegiñagaitik, oituran apur-bat naaztuta gabiltz, euren alegiñezko lege-bidetatik artzen doguzanak gure oiturak apurtzeko diralako, eta emen esan bear da, gure alegiñak beste goiko mailla baten estutu bear dirala.

**LEGEAKAZ:** Eurenak dira, eta orregaitik ez ondo txarto baiño. Menperatzaillearen gogamenak maltzur-oi-turaren gordetzailleak diralako eta guk, zori-txarrez uste dot, gure oiturazko legeak maltzurkerirako alboratu egiten doguzala, eurenak artuta obeto ibiliko garelakoan; baiña ekintza orrek gure nekea bakarrik luzatzen daualako, guk gure alegiñetan Euskal-Oiturazko legeen bidetik bideratu bear doguz, nai-ta bide zikin ortatik joan bearrezkoa izan, gure askatasuna lortu gura ba-dogu. Euren arteko legeetan, gureak izarrak izan bear diranak, eurenak lotsatuta itziteko.

**ORDEZKARITZAN:** Beti esan dot, eta berezitasunean legea dana da, abz izkitegitik izki baten ezean bagabiltzala, gure esanetan ta idaz-lan guztietan, itz orren eza beti agertuko dala. Eta gure ordezkartizako eginkizunetan be bai.

Bardin sortzen da idazten gabiltzan arlo guzti oneitan, euren legetik edo baragarrizko esanetatik artzen ba-doguz gureak alboratuta, gauza bi esan gura dabezala: indarrik ez daukagula alde batetik edo guriak aztu jakuzala bestetik, eta orren neurritik gure Nortasuna desagertzen joango dala.

Nik, gure Euskalerrian ezagutu dodaz gure artean benetako denborak ordezkartizaren arloan, eta nola bai zelan asi gintzazan lotsea galtzen, oso garrantzizkoa dan ordezkartizaren arlo nagusi onetan. Eta eginkizun au BASERRIA ta EUSKERA galtzen asi gintzanetik dala.

**EUSKERA:** Mundu'ko izkuntzen artean bat da, baiña izkuntz guztien artean zelakoa da ?.

Itaun oneri, nai-ta nai-ez beste itaun bategaz erantzun bear: Mundu onetan eta batez be Europa onetan, zenbat erri dagoz curen Kromañoan asieragaz oraindiño, izaeragaz eta izkuntzarekin ain lotura estuak daukazanak ?.

Orregaitik egia da, Euskal izkera, izaera ta askatasunaren neurrian, Euskalduna legezko jatorrizkotasunean besteakin mugatu edo nabarmendu ezberdintasunean egiten dala.

Baiña berezitasun au txarra da..., Mundu onetan gaur dagozan batzangotasunezko, batzundu egiteko (pluralizar) edo askoren artean daukaguzan arazoak konpontze-ko'en iritziakaz ?.

BAI !!, menperatzailletasunezko iritziaren asmakuntzan dabizenentzat, eurak izateko NORTASUNEZKO ARDURATAN besteak ezerezean itzi bear diralako. Sasi-jainkotasunean bizi gura ba dabe.

EZ !!!, batzangotasunezko, batzundu egiteko (pluralizar) edo askoren artean daukaguzan arazoak konpontze-ko'en eritziakaz NORTASUNAREN ARDURAK ZAINDUTA. Orduan danak kontuan eukiten diralako arazoak konpondu daitezcan, danon ardurai aukera emonda, bakotxaren arduratan bearrezko ekintzak zentzuzko osasunean bete daitezcan, bakez bizi gaitetzcan.

Orduan zer ikusirik dauka Euskerea'k Euskal izaera, nortasuna eta askatasunarekin ?:

Bera dalako, burdin, arri ta areari kare-baltzak emoten dautson aukera gorputz burdin-saltsarrizko baten antzera Erria izateko.

Izkuntza edo gure goraberan Euskara dalako Euskalerraren asieratik orain arteko Oroimena alde batetik, bes-

tetik, Euskal egitamuren alkargotik argitzen dan esangura osoa, Euskalerriko izaeraren sinismena dakarskulako, berak daukalako itzez-itzez Euskal etxekuntza'ren (construcción) erainkintza (arquitetocnika) arbasoen jakinduririk aundienagaz eginda, eta berak batzangotu egin ginduzalako ERRIA izan gaitez JAINKOA'ren betiko agindutara.

Oraindik, Europa ontan berak dauka, gure ekintzetan benetan ulertu gaitez itzaren esangura ondoen eta zeatzen bananduta, gauza bakotzarentzat bere itz berezia ta bakotzari bere esangura zeatza emoten dautsolako.. Orregaitik gure itzak danak iruditzen dabez gure buruetan, gauzaren esangura iñora begitu barik, eta orregaitik euskaldunai laguntzen dausku berbakoak izaten, bere magalean sendotasuna eta zeatzasuna bakarrik sartzen diralako.

Izkuntzak, Mundu guztian NORTASUN BEREZIA emoten dausku eta daukaguzan zertzelada guztietatik bera da garrantzitsuena, berarekin beste guztiak ezagutzera emoten doguzelako.

Orregaitik menperatzaillak leenengo apurtu gura dauana IZKUNTZA eta beren IKAS-BIDEAK dira, danak naaste baten sartzeko euren agindupean, daukaguzan oiñarri ta bizitzaren antolamendurako tresneri guztiak erlijiotik asita euren alde kokatuta, daukiezan sasi-elburuak lortzeko.

Gizartearen batzangoak beti !, arduradunen arteko erabagiak izan bear dira zalantzarik gabe, eta gaur daukaguzan Laterriak geienetan NORTASUNEZKO ARDURATAN MENPERATZAILLEAK DIRA.

Antziñetik sasi-jainkotasunezko gogamen orregaz, izkuntz geienak naaztuta geratu dira eta baragarrizko izkuntzak sortu, itzak bear dauan indarra iruditzeo deseginda, izkuntz menperatzaillak daukiezan sasi-jainkozko izenakaz aldatuta: "LUNES-ASTELEENA", gauza aundiak egiten dagozelakoan. Zelako ASTOKERIAK ! eta betiko okerra dana. Lurrera bakarrik begitzen dagozelako; eta betiko denboretatik dakigu: "GOIKO JAINKOA'ren LEGE'ak" lur onetan bete egin bear doguzala. Baiña eurak ekin !!. Eta ori da daukagun betiko borroka Ludi onetan.

Ortik urten bear dogu nai-ta nai-ez JAINKOA'ren bidea berrezkuratu gura ba dogu bakea lortzeko eta azken baten benetako arduradunaren artean MUNDU onek bear dauzan zeatzasunezkd erabagiak artzeko.

Badakigu ba anai/arrebok, EUSKERA garrantzi aundienetarikoa dala, eta orrek esangura dauana, gure alegiñak beste goiko malla baten lotu bear doguzala.

Alegintzen bagara, azken baten "EUSKALTASUNAREN eta EUSKALERRIAREN ASKATASUNA" izango da agertuko jakuna EUSKARA'ren IXILEKO EZKUTAPENETIK.

ATUTXA'TAR PAUL

**Zornotzan 2.002'an bagilla'ren 27'an**

---

# BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

---



ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

## EUSKERA ILGARRI

### RAJOY, ESPAÑIAKO ENDAKARIORDEZKOAK

#### ZER DIO?

**Euskal-eziketa gauza "letal" bat dala.**  
**Letal eta mortífero, biak berdiñak dira = eriotza ekarri dezakenak.**  
**Ziza maltzurra eta Amanita faloidesen antzeko.**  
**Norentzako da iltzaille? Euskaldunentzako?**  
**(DEIA: maiatzak 18, urtea 2002. Igandea).**

#### ZER EZIKETA NAI DUTEN GURETZAT

Bederatzi urte betetzeko nituen 1921'ko Urteberrietan, Barakaldo'tik Lazkao'ra aldatu ninduen. Orduantxe ezagutu nuen errixa baten eskola "nacionala" zer zan: 60 ume euskaldun, adiñean naasi, maixu erdaldun bakar batentzako.

Garai artan Lazkao'k 1.800 biztanle zitun; erdiak baserriar eta beste erdiak kale-euskaldunak. Aien artean ni nintzan Barakaldo'ko maketoa: euskerarik ez zekiena, alegia.

Nere aldamenen eserita Antonio Arkaiaga (ni Arrinda), Lazkao-mendiko baserri bateko maiorazgoa. Auzo aretan bizi izan zan, beranduago, Lazkao-txiki bersolaria. Ez zion maixuari tutik entenditzen; ezta maixuak berari ere. Eskola artatik ez zuen inungo kulturarik jaso. Ezkerak, etxean, amamak Kristau-dotriña erakusten ziola euskeraz. Uraxe ikasi zuen mutur batetik bestera, ete-nik gabe.

Ez da, ba, antzeko maixuak, lista pasatzekoan, Antonio Arkaiaga deitzen zuanean, gure mutillak zutik, onela erantzuten ba'zion; "Sardina ustel"; "Servidor de Usted"en antza apur bat bazuen. Ez zuen ori ere ikasi.

Gizonduta gero, basoan arbolak botatzen ari zirala, batek azpian artu eta il zan gizarajoa.

#### ZER-EDO-ZER IKASI ZUAN.

Kantatzen ikasi zuen eta erderaz. Or'etan maixuak arreta aundia erabiltzen zuan. Ona lenego abesti oiñarrikkoa:

Banderita tú eres roja  
Banderita tú eres gualda  
Llevas sangre llevas oro  
En el fondo de tu alma.  
El día que yo me muera  
Sólo quiero que me cubran  
Con la bandera de España.

Ez ukatu ume euskaldun baten eziketarako, ez dala ori otoitz eta kanta egokia eta ederra. Beste au ere ikasi zuen:

Soldado soy de España  
Y estoy en el cuartel  
Contento y orgulloso  
De haber entrado en él.  
Es honra singular  
Vestir el uniforme militar.

Nik oiek an ikasi nitun eta Antonio Arkaiaga'k ori ikasteko baño milla bider geiago memori zuen. Orren antzera ibilli giñan eskola "nacional"etan, 1931'eko Bigarren errepublika agertu arte.

#### BIGARREN ERREPUBLIKA ETA ONDORENGO UGOLDEA.

Zorioneko Bigarren Errepublika agertu zanean, askatasun-aizebolada batek jo zuan Euskalerrria. Guztion asi gintzan euskera eta Euskalerrriko historia, giltzapean gordeta zeukatena, ikasten.

Orduntxe esnatu.  
Sei urte eskas.

Seigarrenean, 1936'ean, Naparroa'tik agertu zan ugolde negargarriak, sei urteetan egindako lan guztiak infernuetaraiño bota zituzten: erriak txikituta (Gernika ez zan bakarra), gizakumeak il eta bizirik iraun zutenak atzerrira desterratu. Gau illun beltza erori zan Euskalerrri-gañera.

Lazkao'n dauka "Duque del Infantado" bere jatorrizko jauregia eta an gelditu ziran soldaduek izugarrizko pancarta aundi bat esegi zuten aurreko paretan, gorritz eta oriz:

SI ERES ESPAÑOL, HABLA EN ESPAÑOL.

Eta Donostia' n, itz eta berba bat euskeraz entzuten zieten, 20 zillarrezko ogorleko mando, kentzen zieten.

Noiz? 1936-1937.

#### "LOS SEPARATISTAS VASCOS..."

Une aretan solddu nengoen Donostia'ko Loyola-kuartelelan. Bi kuartel zeuden; bat "Ingenieros Minadores Zapadores" (ni oietakoa nintzan) eta bestea "Artillería" (16'ko obusak kañoirik geienak).

Goiz batean, Donostia'tik Hernani'rako tranbia soldaduz gañezka zijoan kuartelelara eta ni tarteko. Erlauntza zirudien, euskeraz. Escrita zetozen, guztien erdian, bi falangista, mutil ederrak, alkandora urdiñetan ugal beltzak eta pistolatxoa gerrian. Ikastola Nagusiko jendea zebillen falangisten artean eta aiek universitari-riosa-osaña zeukaten dariola.

Alako batean, asi dira biak indar guztiaz kantari:

Los separatistas vascos  
No lo pueden remediar  
Si se juntan tres o cuatro  
Empiezan a rebuznar.  
La cucaracha, la cucaracha...

Tranbia osoa ixildu zan tximistak jota bezela. Aientzako, euskeraz egitea eta separatista izatea, biak bat ziran. Euskera bera, berriz, asto baten arrantza. Falangista universitario aien buruetan, orixe zegoen garbi: euskaldunok asto-separatista, besterik ez giñan.

Eta falangista aiek izan ziran, gerra-ondoren, España'ko gobernuen nagusiak. Eta, 1975'erarte, aiek eta aien ondorengoez eman ziguten berriro, euskaldunei kultura erderaz eta Madril'etik erakutsi Euskalerrria' ren historia zer izan dan.

"Zazpi estadio", tximistaren aizkora sartzen zan modura, sartu zuten euskera eta euskal kultura. Baña, erri xeeak eutsi egin dio euskerari ainbeste urtez arri-losa astunpean.

Aize-bolara berria sortu zan 1975'garren urtean, eta falangista aien ondorengoez, nagusitasuna lortu dutenean politika aldetik, berro eraman gaituzte lengo losa-azpira. Gauza oso serioa esan du ministro jaunak.

Arrinda'tar Anes

Ekainillak 26. Urtea 2002

---

## ERRI-KANTATA MUNGIA'N

---



*Erri Kmrata-Mungia*

Mungiarrak gauza ederrak egiten beti jakin dabe, baiña aspaldion askoz geiago. Oraintsu ikusi al izan gendun erriaren edestia agertzen eban antzerki abestu zoragarria eta, ori gitxi ba'litz, aurtan "Mungia-Erri-kantata" eskiñi dauskue.

### JAI-GIROAN

Kepa Deunaren jaiak dira Mungia'n eta aurtan, jai orrean barruan, J.M.Arregi Abesbatzaren 50n. urtea ospatzen dabe, eta aundikiro ospatu be. Alde batetik izan da eres-aldi ederra eta bestetik sariak eta oroigailuak banatzea. Eta eres-aldian zati bi, bata beste baiño obeak: Lenengoa Abest-Batzaren eresaldia eta "Mungia Erri-Kantata" bigarrena.

### ABES-BATZA TA ORKESTA

Talde biak ondo alkartuta ederto abestu eta jo ebezan gai oneik: Haendel'en "Canticorun jubilo", Mozart'en "Ave Verum", Haendel'en "Largo" eta Verdi'ren "Nabuko"ren zatia.

### "MUNGIA ERRI KANTATA"

Baiña ekiñaldi osoan gauzarik zoragarriena Erri Kantata izan zan.

Lenengo, Edu Iriondo'ren izki edo letrea lau zatitan: Mune-ganean, Millaka kolore, Argi-illunak eta Bide


zarrak-bide barriak. Bizkaieraz eta ondo idatzia izki au. Irudimena ugari agiri da or.

Ederra, baita, Sabin Salaberri Gasteiz'ko musikarari ospetsuak Erri-KANTATA orreri ezarri dautson eresa, benetan zoragarria!

180 ereslari izan doguz aurrean, eta onein artean txalaparta, txistu, soinu ta orkesta abesleriai laguntzen. Jose Mari Arregi Abes-Batzak lan aundia egin dau au gertatzen eta ondoren goragarria lortu.

Zoriona Mungiar guztiai, batez be J.M. ARREGI abesbatzari eta Anjel Entzuntza zuzendariari.

**Olazar'tar Martin'ek**



*Sabalzaillea baseleiza Mxaagia'ko Markaida "n*

# (1).-ARRI ARO ZARRA (PALEOLITIKUA)

## Oarra:

Gaur asten dogun idaz-lanen ekiñaldi au, Edertiaren edestiari buruz dan ekiñaldia, berau idazten dauanak beti izan dauan zaletasun aundia da.

Nire liburutegian, 3500 liburuen artean, 50 liburu dotore daukadaz gai oneri buruz "HIARES" algitalxeak argitaratuak, zuzendaria C.Porras, E.Ballesteros eta Fco.Jimenez dirala, eta ikasgai bakoitzean argi-irudi edo diapositibak ugari dirala.

Beste alde batetik, zar-saridun biurtu nintzanetik aurrera, ez da nitzat gauza erreza egunaren ordu luzeak betetzea, jakin be ez dakit beste ezer egiten, idazten izan ezik, eta lan au egokia izango jat orduak betetzeko.

Gaiñera, irakurleentzat gai egokiak izango dira, bakoitzaren kultura edo jakintza ugartzeko onak, baita euskerearen itzak erabilteko naiz edestiaren tokiak jakiteko naiz irudiak gozatzeko be.


Tankera baktxari buruz idaz-lan bat egingo dot, gero illero ZER'en argitaratzeko. Amasei zenbakitarako izango da ba, zeregiña.

Ni pozik ibilliko naz gai oneik argitaratzen, ibilli beitez pozik irakurleak irakurten.

Edesti-aurrea esaten dautsagu, gizonak idazten ikasi eban aldiaren aurrekoari. Diñoenez milloi pare bat urtekoa da.

Baiña idazten ikasi baiño askoz lenago gizonak bere buruaren lekuko diran gauzak izten ikasi eban: Ondakiñak, giza-azurrak, lan-tresnak eta marrazkiak batez be. Aztarren onei jarraitzen dautsegu gaurko idaz-lan onetan eta urrengo batzutan.

Arri-aro zarra deritxagu gizonak bere eskulanak agertzen dauzan lenengo sasoiari eta erreztasunerako, iru aldi artuko doguz: Beko arri-aro zanean Atxelense, erdiko erri-aroan musteriense, eta goiko arri-aro zarrean, auriñazense, solutrense eta magdalenienese.



*Beko arri-zar-ama  
Lanahes gitxi landuak.*

## 1.1. Beko arri-aro zarra.

Auxe zan aldirik zarrena ta luzeena, gizona lurgaiñean agertu zanetik eta orain 100.000 urtera arte. Guztiz Milloi pare bat urte inguru.

Sei giza-mota agertzen dira epe luze onetan: Pitekanthropo: gaurko tximiñoen antzekoa da baiña buruko garaunen lekua askoz txikiagoa. Java ugartearen aurkitu eban 1891n. urtean Dubois zar-izti-zaleak.

Sinantropo: Pekin'en aurkitu eban 1921n. urtean Anderson'ek. Aundia ta sendoa da eta okotza dau aurre-ratua. Aurrekoak baiño buruko garaun zabalagoak geien-tan baiña gitxiago erabilliak.

Driopiteko: 1856n. urtean Frantze'n aurkitu eban. Europa'ko giza-mota da, baiña oso antxiñakoa.

Australopiteko: 1924n. urtean Afrika'n aurkitua. Buruko garaunak askoz txikiagoak daukaz, gaurko tximiñoen tamañukoak, eta agiñak gizonaren antzekoak. Bere ondoan sua be aurkitu da eta beste trebe-ezaugarri batzuk be bai.

Zundjantropo: 1931n. urtean Afrika'n aurkitua. Australo pitekoaren antzekoa da baiña zarragoa.

Megantropo: Afrika'koa au be, 1935n. urtean aurkitua, pitekanthropo ta australopiteko'ren antzekoa.

Emen irakurleak, nai izan ezkeru, aztertu beiz neuk ZER'en argitaratutako lanak Atapuerka'n egindako aurkitzeai buruz.

Gizaki guzti oneik sua ba-euken, lanabesak egiten eban, basoan eiztariak eta batzailleak ziran, alkartuta ta nasteen bizi ziran, guztiak ziran bardiñak, baiña ez dago ziurtasun aundirik au esateko. Erreka-ondoetan bizi ziran eta aldi batzutan aitz-zuloetan.

Euren lanabesak gitxi landuak ziran. Ikusi 5n. irudian. Ez dakigu ziur erlejiñorik edo majiarik euken.




### 1.2. Erdiko arri-zar-aroa

Aro au Kristo'ren aurretik (K.A.) 35.000n. urte ingurukoa da.

Emen agertzen diran gizakiak ez dira aurrean esandakoak, mota beratakoak. Onei "presapiens" edo jakituri-aurrekoak deritxe. Onein artean Neandertala txikia ta lodittoa, azurtsua, buruko garaunak aundiak, bekokia atzerantza, okotza aurrera.

Neandertala be eiztaria ta arrantzalea da, igaleak batzen dauz oian baltzean eta aurrekoen antzera bizi da.

Lanabes asko itzi dauskuz: arriak obeto landuta eta eskuko aizkorea be arrizkoa.




*Neandertal lodittoa ta Cro-magnon onek irabazi eban eta bestea betiko galdu.*

### 1.3. Goiko arri zar-aroa.

K.A.'tik 30.000n. urte inguruan agertu zan gizaki jakituna: Eiztaria da, baiña zurragoa, Asia'tik etorria dala diño batzuk eta gaurko gizonen antza dauko. Lartet billatzailleak aurkitu ebazan Ienengoak Cro-magnon'en eta ortik dauko izena: Goiorea 180 zm., buruko garaunak gaurkoen antzekoak. Baiña Cro-magnon guztiak ez dira bardiñak. Grimaldi deritxona be "jakituna" da baiña garaun txikiagoak, gorputz txikiagoa eta makalagoa dauka, besoak luzeagoak. Gaurko baltzen antza dauka.

Oneik be eiztariak eta batzailleak dira baiña lanabesak askoz obeto landuak daukez. Otz aundia egiten eban aro aretan eta aitz-zuloetan bizi ziran. Indartsuak zirala-ko, beste giza-mota guztiak azkena emon eutsen.

Orain ez dira guztiak bardiñak: zertarako balio daben atarako ziran; batzuk aztiak, beste batzuk margolariak, beste batzuk eiztariak edo burrukalariak. Toki baten batzen dira umeak eta emakumeak, elduak sartzen dira arriskueta eta zarrak bakean bizi dira. Gazteen artean sortzen da geroko agintarien eredu izango da buruzagia. Leiñu oneri klan esaten jako eta endogamian bizi dira, euren artean ugaritzen dirala.



*Goiko arri-zar aman lanabesak oheto landuak Jira.*

Lanabesak: Arrizkoak oso obeto egiten dabez orretarako losak artuta. Baiña oneik egiten daben asmakizunik aundiena azurrezko lanabesak egitea da.

Cro-magnon gizaki-mota onek ederti-lanean agertzen dau berezitasuna, margotzaille lez punterengoak dira. Ederti utsa be ez da, majia edo aztikeriagaz doa.


### Erdiko arri-aroa (mesolitiko).

K.A. 10.000n. urte inguruan giroa aldatu eta Europa osoan otza kendu zan. Orduan gizaki batzuk iparraldera joan ziran. Otzaren billa, piztiakaz batera. An gaurko eskimalen antzera biziten jarraitu eben. Beste batzuk emen gelditu ziran eta bizi-era barri bat asi. Oneik dira mesolitiko edo erdiko arriarokoak eta lau milla bat urte diraue gaurko mediterranean-itxaso inguruan.

Margotzailleak dira, baiña beste tankera batekoak, eskematikoak deritxenak. Irudiak ez dabez artzen diran-lakoak, aldatu baiño eta gizona agertzen da askoz geiago.

Eta emen izten dogu edesti-aurre au, urrengoan "arri-barri" edo neolitikoa arteko. Gu, euskaldunok Cro-magnon'en ondorengoak garala diño gure Barandiaran'ek.

### Olazar'tar Martin'ek.



*Lur-arte edo ntedite rrmteo aldeko margolari eskematikoak*

---

# EUSKAL-ABIZENEN ETIMOLOGIAK

## DIRALA-TA

(Etimologizari buruz bi adiskideen arteko borroka)

---

Olazar'tar Mattin, "ZER" deritzan gure aldizkari onen Zuzendaria, euskal-abizenetaz idazten asi zaigu, eta abizen oien etimologia edo zer-esan-naia agertzen.

Ni, ordea, etimologia oiei dagokienez, "a dos" nago Martiñ'ekin, ots, bera bere iritziarekin eta ni nerearekin; eta, naiz "a uno" etorriko ez gerala jakin, nere aburuak azaltzen astea erabaki dut, orrela "etimologien guda" bati asiera emanez<sup>1</sup>.

Mattin eta ni adiskide aundiak gera, eta ez bildurrik izan, au odol-isurketarik gabeko gudua izango da eta.

"Etimologia", berez elenerazko itza da, ("étymos", egiazkoa, eta "logos" itza). Etimologiak itz bakoitzaren "nondikoa", eta, ondorioz, itz bakoitzaren egiazko esan-naia adierazi nai izaten digu. Ez da jatorriz euskeraren itza. Baiñan, izkuntza guztietara zabaldurik dagoan teknik-itza dalarik, nik beti bera erabilliko dut. Euskerak ere, beste izkuntza guztiek bezala mundu osoarenak diran teknik-itz oiek ontzat artu bearrak bait ditu, mundutik kanpora gelditu nai ez ba'du.

Jo dezagun bá aurrera.

Incipit bellum etymologiarum:

- **ARRIETA**: ¿"Arte asko dagon lekua"? Ez zekiat bá, Mattin. "Arte" gaztelerazko "encina" duk, bai, baiña "ardi" itzaren "d" ori, "ardi" itza beste itz batekin alkar-terakoan "t" biurtzen duk-eta ("artille", "artabide", "artola", "arteste"...). Oridalata, ARRETA "ardi-leku" ere izan daitekeala esango nitek nik, gaztelerazko "redil" edo "aprisco", euskerazko "artaleku", "artegi", eta ez dakit zenbat izen geiago...

Or gauza bat zegok argi. ETA, beti-beti-beti, atzizki ugaritasun-adierazlea dala, eta, oraingoz dakigunez, bera bakarra dala beti, —beti, beti—, ugaritasuna adierazten duan atzizkia.

Ortaz, arte bat edo pago bat bakarra dagoan tokiari "arreta" edo "pagoeta" esaterik ez zegok. Toki bati "arreta" edo "pagoeta" esateko, naitanaiez an arte bat —edo pago bat— baiño geiago egon bear dik.

Ori zergaitik? "Ugarikeran", ots "pluralean", "ETA" euskal-deklinabideko "ablatibo" edo "non-kerako" atzizkia dalako; "bakar-eran" (singularrean) "N" dan bezala. Txori ori non dago? Arte-a-N (en la encina). Basurdea: ¿non ibiltzen da? Mendi-ETAn (en los montes). Berdin izango da erabillia ugarikerazko deklinabidearen beste mailletan era: ¿Nora dijoa basurde ori? Mendi-ETA-ra (a los montes). ¿Nondik dator? Mendi-ETA-tik (de los montes). ¿Nongoa da? Mendi-ETA-koa (de los montes).

"Polideportivo", Arantzazuz-geroko Euskaltzaindi onen jarraipeneko itzultzaileek "polikiroldegia" itzuli dute. Badira ori asarre artu dutenak, "poli" ori alperrik dagoala ta "kiroldegia" bakarrik naikoa ornen zalako. Oker dabiliz: Kirol bat bakarreko tokia ere, adibidez gure "frontoi" bat, kiroldegia bait da. Ori orrela izanik, ez asarretu diran auek, ez itzulpen baldar ura egin zuten aiek, arrazoirik ez dute. Aztu egin zaie, euskeraz "polideportivo" esateko, itz egoki bakarra, auxe besterik ez dala: KIROLETA. Ondo itz polita!

- **ARTOLA**: Zailtasun latzeko etimologia duan itza. "¿Arte asko dagoan tokia"? Bai, Mattin; baiña ik bada-kik "ola" beste gauza asko ere badala: "zura" adibidez, eta, orregaitik, "Olaetxea" k zurezko etxea esan nai dik. Baiñan "eraikiñ zabala" edo gaztelerazko "construcción amplia" ere esan nai duala egia duk. Ortik "fabrikei", guztiei, eta bereiziki gure fabrikarik garrantzitsuenak izandako, burnimena burni biurtzen zuten "ferreriei" OLA esatea.

Era berean, badakik baitare mendietan ardiak biltzen ziran borda, korta, eta txabola aundiei ere OLA esaten zitzaie. Orra bá zergaitik, gure aldizkari ontako ARTOLA au "ardi-borda-aundi" bat izan zala esatera ausartzen nauken. A!, laburpenetarako gure izkuntzaren gauria oroitzuz, "Artola" ori, arri-ugari-tokia ere izan zitekeek (arriola > arrola > artola), naiz aalketa edo posibilitate au, itzaren erdiko "t" orren erruz, nabariki zail-lagoa gertatu.

---

<sup>1</sup> "Ados", erbestetik ekarritako zakarkeri mardul bat da: Arantzazu-osteko Euskaltzaindiak ontzat artu duan barbaru-keri edo atzeritarkeri itxusia: Frantzerazko "adossé" itzetik sortua.

Nik, nere Euskal-Kristautasunaren Edestiari-buruzko liburuetan, gaztelerazko "lápida"ri "arri-ola" esan oi zioat: Moises'i Jainkoak Sinaimendi'n emandako bi ol aiei esan izan oi zaien bezala: "Tablas de Piedra: "arri-olak".

Ta..., bai al dakik, Mattin, Arantzazu-osteko Euskal-tzaindi kupidagarri onen "el batuaz", OLA, OHOLA dala. naiz Euskalerrian, olan, sekulan "ojola" iñon iñork esan ez.

- ARRAZOLA. Itz ori, berez, ARRATZOLA da. Baiñan LARRATZOLA ere izan daiteke. Ezaguna bait da gure itzek beren lenen-izki edo letra galtzeko duten erreztasuna (errekalde, rekalde: larraga, arraga, larraitz, arraitz...). OLA zer dan esan dugu. "Larratz", berez, "lar-ugariko-tokia" da, gaztelerazko "Espinal", erri askoren izena. Ez dakit ordea oraingoan guri etimologi orrek halio digun, ez bait dakit zenbat aldakuntza izan dituan "Arrazola" k urteak-zear. Eta ori jakin bearra duk itz baten etimologia igartzeko, arritzekoa bait da zenbat aldaketa eman izen dituzten gure euskal-izenak mendeak-zear, askotan, lumalari erdaldunek itz oiek oker entzun eta okerrago idatzi dituztelako, baiñan geien-geienetan, agospide edo pronuntziaketa errezagoko baten billa "nekerik txikienaren legea" ren eragiñez.

- ARETXAGA, "robleal"? ARRIAGA ta ARRIETA "pedregal"? Bai, Mattin. Bat natorkitk irekin, naiz nik "aga" ta "egi" atzizkien arteko ezberdintasuna zertan egon daitekean jakin ez. Baiña naitanaiez egon bear dik ezberdintasunen bat.

Arrieta, beintzat, ezpairik gabe duk "pedregal".

- **ARRIEN:** Orrelako zerbait esango nitek ARRIEN abizenari buruz ere. "EN" atzizkiak, nere ustez, geienetan "nontasuna" agertzen duan atzizkia bait duk. Arrien, ortaz, "arritza" duk, ots, "arri askoren arteko etxea", gure abizenak, geienak beintzat, aurretik etxe-izen izanak bait dituk.

Ba'dugu, nere uste apalez, etimologi ortara iristeko beste bide bat ere: Arre-n eta bere antzeko Lasuen (Latsu-e-n) Arri-e-n, Arru-e-n eta orrelako beste itzetan "e" ori "a" atzizki diagu nere iritzi apalez. Ots, itza nominatibu edo izen-keran ipintzen duan atzizkia; euskaldunik geienen agoetan "e" biurtzen dana. Orra nola, ortik ere, itz oien etimologi, Latsu-a-n, (toki urtsuan, "entre regatos"), Arru-a-n ("en la hondonada") eta gure ARRI-E-N, Arri-a-n (en la piedra) izango lirake.

- ARRIOLA. Bedi ardientzat, bedi burnigintzarako, "irriz egindako ola" izan daitekeala esan ondorean, geienetan "arritza" esan nai dualako ortan ere batera natorkitk, Mattin.

Araba'n badiagu izen ortako erriska bat Asparren izeneko udalan, naiz geografiz Asparren ortatik urrutitxo, Barrundi izeneko aranean egon. Erdiaroz auzitan ibilli zizkiagukuen erri ortako etxejoaunak, alboko Barria lekaimetxean bizi ziran lekaimetxeekin. Epaiketa egiterakoan, iñoren aldeko izan ez zedin, Mendien beste aldetik ekarri ziaten epaillea. Bizkaitik ainzuzen. Nor? eta Bizkai'ko Jauna bera!

Onek, ordea, gaztelera-zale izaki-ta, gaztelerrara biurtu zian erriaren izena: "La Pedrera", ots, gaurko esakeraz, "El Pedregal".

Orrela agertzen duk beti gure Arriola, Jaun ark izenpetu zuan larrukian.

Eta orrela joan dituk gure izenak beren euskal-itxura galtzen.

Egunotako batean ikusi-berria diat, Araba'ko Aldundiak argitaratutako turist-orri batean gure LAMINORIA (¿"río de ninfas"?) izen polita "La Minoría" bihurturik. Erru gutxiagorekin izan uan bat baiño geiago gure guda zikiñ artan afusillatua.

Bizkai'ko Jaun arek zer sententzi eman zuan? Salomon'ek bi emagalduta aiek aurkeztu zioten umearekin egin nai izan zuana egin zuan Barrundi'ko ibaitxoarekin: Bi zatitan ebaki: Zati bat arriolatarrantzat, bestea Barria'ko lekaimetxeentzat<sup>2</sup>.

- ARRILLAGA, nere ustez, ez duk ARRIBILLAGA-REN laburpena, Mattin. "Arbilja" izango bait ueke euskal-fonetikaren araura, Arribilla-ga'ren laburpen egokia.

Baiñan Arribillaga'ren laburpena ba'litz ere, bere etimologia ez ueke "arri-borbillak dauden tokia" izango, ori etimologi errezegia bait duk.

"BILLA", eta latiñezko dokumentu zarretan "VILLA" edo "VILA", euskal-izena da. Gure toponimian atzizki bezala ere aski ugari agertzen dana. Sorabilla da, Gipuzkoa'ko Andoain'en ondoko erri bat. Eta nere abizenetako bat. Sunbilla Nafarroa'ko erri bat, eta Garabilla, bertako abizen bat.

Ortaz, ordea, bere garaiean mintzatuko gera, bi atzizki ezberdiñak bait dira "BILLA" eta "ILLA".

<sup>2</sup> "Martiniñ'ek bere idazlan auetan Kerexeta'tar Jaime'ri jarraitzen dio. Jaime'k nere lagun maite aundia izandako Lopez Mendizabal'dar Isaka'ri jarraitu zion bezala, baiñan Euskeraren alde eta JEL Alderdiaren alde ainbeste lan egindako Ixaka nere adiskidea, ez zan etimologiei-buruzko arazoetan oso maixu ziurra. Noizbeinka, Kerexeta'k, Mitxelena'ri ere jarraitzen dio, baiñan Koldo Mitxelena Caro Baroja'ren atzetik ibilli zalako, geiegizko latinzale agertzen zaigu maizegi. Caro Baroja'k euskeraz ez zekian, eta Mitxelena bera ere euskaldun berria izan zan.

Gaurkoz, naikoa bedi, ARRILLAGA, "arrikoxkor ugariko tokia", (lugar de mucha gravilla) dala esatea. "ILLA", (neskatilla, mutilla, txingilla, leiatilla...) atzizki txikitasun adierazlea bait da, gaztelerazko maestrilla, perilla, mantilla, gravilla, muchachilla... bezala).

Gure atzizkia ¿gaztelerazko ortatik etorria ote da? Baleike. Kontuz, ordea! Latiñezko atzizkia ez bait da.

"Illa", edo "ila", latinez, izenari emakera emateko erabiltzen zan (Petronius – Petronila; Domitillus – Domitilla; Quintius – Quintilla; Fabius – Fabilla eta Fabiola). Baiñan txikitasunaren adigarri bezala, ez. Ortarako, beste atzizki au erabilli oi zuten; "culus-culaculum": Monti-culus, menditxoa; Dumus-cula, etxetxoa, templum-culum, jauretsetxoa, ots, elizatxoa.

- Berdin ARRINDA ri dagokionez: Ez zait iduritzen bá abizen orren etimologia "arritarteko sasi ugari dagoan tokia" izan daitekeanik. Ez bait dut uste itz orren erdiko "IN" ori Euskalerrriaren iñongo zokoan "sasia" danik. Ez da beintzat gure iztegietan zentzu orrekin agertzen.

"IN", "IÑA", "INA", Benaparroa 'n eta Goinaparroa'ren sortaldean, guk "iia" esaten diogun landarea da; gaztelerazko "junco". Ortaz, Arrinda'ren esannaia ¿"arri-ta-ii-arteko etxea" ote da? Non sapit! Ez zait atsegiña!

Itzaren asierako "Arrin" ori, ¿ez ote da "Arrigain"? Eta Arrinda Arrigainda'ren laburpena? Orrela ba'litz, Arrinda ren etimologia "la casa que está sobre la piedra" izango litzake. Orrela dan jakiteko, ordea, orainarteko mendeetan Arrinda ori nola idatzi dan jakin bear! "DA", beintzat, atzizki toki-adierazlea dugula esaten bait da.

Bat gaituk, Mattin, "da" atzizki toki-adierazlea dalako ortan. Baiñan beste ainbeste euskal-atzizki toki-adierazleen artean "DA" orrek zer bereiztasun izan dezakean ez zekiat. Zerbait izango dikela, bai. Izkuntza zarrek ezaguna bait ziaten gure erdiaroko filosofiarren esakizun ura: "no sunt multiplicanda entia sine necessitate: alegia, "bearrezkoa ez danik ez dala sortu bear".

Badu "Arrinda" k, itxuraz beintzat, askoz etimologi errezagoa: AR-INDA. Benaparroa'n eta Goinaparroa'ren ipar-sortaldean INDA, zidorra da, gazteleraz "senda".

Ortaz, ARRINDA, "zidor arritsu", espainieraz "sendero pedregoso" izango litzake.

Alare badut nere kezka. "Inda" sortalde-sortaldeko euskeraren itza bait da..., eta, nere Mattin maiteak, Kerexeta'ri artuta, Arrinda sarkaldeko euskeraren lurretan sortutako abizena dala bait diosku: "Arrinda: Etxano'n sortua ei da baiña leku askotan agiri da".

Kerexeta'k abizen bati toki bat erasten dihonean "Arrinda. En Etxano"—, ez du esan nai abizen ori toki

artan sortua danik. Au da esan nai duana: abizen ori, aurreneko aldiz, toki artan azaltzen dala, dokumentuetan; bereiziki "hidalguía" edo aitorensemetza agertzeko idazten ziran dokumentuetan.

Egia da Inda euskal itza dala; eta arras ugari agertzen dala toponimo (toki-izen) eta andronimo edo giza-izenetan. Baiñan toki eta giza-izen oiek geien-geienak gure sortaldekoak dira.

Ortik nere kezka, ¿Andik etorri ote zan Etxano'ra abizen ori? Zail-xamarra gertatzen zait. Abizen orren edestia jakin bear, bere ibillerak jakiteko.

Beste onoko auxe datorkit bat batean burura: Gaurko ARRINDA ori ¿ez ote zan antziña LARRAIN-DA izan? Ori egia izatekotan. "Arrinda", len, gazteleraz, "(la casa de) junto a la era" izanen zan.

Abezinak —eta tokiizenak— jasan dituzten aldaketak jakiteko bear-bearrezkoa dugula dokumentuen azterketa!

- ARRUE. Esan dugu "arrue" "arrua" dala, "a" atzizkia Euskalerrria'ren zatirik aundienean "e" biurtzen dalako, baiñan bere etimologia ez da mendi-muñoa, mendarteko zokoa baizik, "desfiladero pedregoso".

Buruz dakidan "Bizia lo" izeneko Lizardi'ren "olerki" bikain batean ere agertzen da. Olerkariak, "ostoz gutxitutako sasia" utsik dagoan kabi urratua "oroituz gero, "euriak indartuta, zokotik, oiur dagian errekatxoa" aipatzen digu. Entzun berari:

Osto-bakandu sasia  
kabi bat, ust, urratua...  
Arru-beetik errekatxots,  
euriteak bulartua...

- **ARRUPE.** "Arrube" aipatu digu lizardi'k: "Arru beetik errekatxots". Bá, esan dezagun "BE" eta "BA" atzizki bat bera dirala. Naparroa'n Aralar'peko Araiz Aranean, Gipuzkoa'ko mugatik 9 kilometrorra dagoan ARRIBE nere ama Benitte'ren jaiterriari ARRIBE edo ARRIBA esan zaio urteak eta urteak-zear.

"PE", berriz, fonetikaren eragiñez aldatutako "BE" berbera da. "PE" sortaldeko euskeraz, "BE" sarkaldeaz. Sollube, sarkaldean Sollupe izango litzake.

Alatagutziz "BE" ori, antziña sarkaldean ere erabillia izan zala esango nuke. Adibidez, Arribe'ko umek, bere erriaren izenak zer esan nai duan ez dakite, eta, ori jakin deazaten, Arribe Arribe dala esaten zaie.

"BE" ¿zarragoa ote da "PE" baiño?

---

**DIRANAK IZAN**  
 ("SEAN CUALES FUEREN")  
 ETA'REN ETA "BATASUNA"REN ARTEKO  
 ARREMANAK

---

**(Lantxo au ere "Diario de Navarra"n  
 argitaratu da. Orregaitik  
 Naparroa'ko euskeraz doa).**

Itz oiek, Euskalerri'ko Gotzaien Pastoralekoak dire.

Itz garbiak, txukunak, egokiak; esan bear-bearrezkoak ziren itzak.

Alare, izugarrizko ekaitza sortu dute Espāñi guzian, eskubi gogorreko (PP) ta eskubi biguñeko (PSOE) politikari ta periodisten artean.

Zurrunbillotu zaku Espāñi'ko Jaurlaritzta bera. Ministro Jaunek, Aznar beragandik asita, ez dire ba Laterri onuragarri baten Legezko Jaurlaritzaren ministro bezala mintzatu. Taberna-zulo batean bildu oi diren ala-olako talde bateko "adiskide baldarrak" bezala mintzatu bait dire.

Gaizki ulertuak izen dire, espāñizaleen artean gure gotzaien itzak. Ta, itxura guztien araura, -naita izen dire gaizki ulertuak!

Ondorioz, Pastoral oso-osoia izen da oien telebista, irрати, ta aldizkarietan oker erabillia; komeni ez zitzaiena isilduz, eta komeni zitzaiena komeni zitzaien bezala okertuz. -Bai zori makurreko jendea, Espāñi'ko jende gaixoa, orrelako maixu, orrelako jaurlari, ta orrelako profeten menpean!

Ona orain emen gotzaien itzak Pastoralaren argitalpen ofizialetik artuta.

(Gotzaiek, "Alderdiei-Buruzko Legea" erabat moldaturik ez dagola-ta, zer ondorio ekarri dezazkean ziur asmatzerik ez dagoela adieraziz gero, alare oso ondorio txarrak ekarriko ote dituen kezka agertzen dute, eta onela jarraitu: "...consecuencias sombrías que, SEAN CUALES FUEREN LAS RELACIONES EXISTENTES ENTRE BATASUNA Y ETA deberían ser evitadas".

Ori, oso-osoan dotriña kristaua da. Beti izan da, ta beti izango da.

Alatagutziz aurkituko dituzu, itz oiek kenduta ere, esaldiak indarrrik galtzen ez duela-ta, ez zirala esan bear uste duenak.

Oker dabiltz orrelako oiek. Itz oiek esan bearrak ziren. Ikus:

ETA'ren eta "Batasuna"ren arteko arreman oiek nola-koak eta zenbaterañoakoak diren azaltzea, ez da gotzaien lana. Orregatik diote ederki "direnak direla", "sean cuales fueren".

"Batasuna"ren eta ETA'ren arteko arremanak aztertzea Espāñi'ko Epai-Mai-Nagusiaren lana da.

Ez, Jaurlaritzarena. Eta askoz obeki legoke azterketa ori La Haya'ko Nazioarteko Epai-Batzak egingo ba'lu, Espāñi'ko Epaille Nagusi guztiak, —edo zearretara edo zuzenean aukeratutako oien bidez—, denak Aznar berak aukeratuak bait dire.

- Epaiketa zintzo baten bidez "Batasuna"ren eta ETA'ren arteko arremanak oso-oso-oso larriak eta astunak direla agertuko ba'litz, Jaurlaritzak, Batasuna zigortzeko, arrazoirik aski izengo luke.

- Bañan orduan ere, ekintza orrek, ekarri dezazkeen gaitzak eragozteko, al duen guztia egitera bearturik legoke Jaurlaritzta.

Orixe besterik ez da ba, okertuak izateke Pastoraleko itz oien egiatzko zentzua, ots, berenez duten zentzua.

Jarri dezagun adibide bat: Gure ekintza guztiek, baita bearrezkoen ere, (bedi testamentu bat, bedi buru-ruiñetako ebakuntza bat, bedi beste edozer gauza), ondorio txarrak ekarri dezazkete, baiña gu, ondorio txar oiek etorri ez ditezen, al dugun guztia egitera bearturik gaude.

Ori besterik ez da ba gotzaiek esan dutena: Jaurlaritzta egitera dijoan ekintza arriskutsu orrek, ots, Alderdi bat legezkanporatzeak, ondorio txarrak ekarri dezazkeela ta Jaurlaritzta ondorio oiek etorri ez ditezen, al duen guztia egitera bearturik dagoela.

Gure gotzaien itz bakun oiek, ordea, naita izen dire eskubi gogor eta biguñeko espāñizaleek oker ulertuak; naita oker ulertuak; ta pozik oker oiukatuak; eta Espāñi guztira oker zabalduak.

Jainkoak barka bezaie egin duten gaitza.

Baña, orregatik ainzuzen, politikaren giroa ain zinkindua daukagulako, itz oiek esan bearrak ziren.

Ez bait zen bestela gure gotzaien erakuskintza bear bezain osoa, ots, bear bezain zintzoa izengo.

**Latiegi'tar Bixente. 943 220050.**

**Apeza**

---

**NORBERAK EZ LEUSKIO EGIN BEAR  
 BESTE BATERI, NORBERARENTZAT  
 MINGARRI DANIK. ORI DA GURE  
 ERLEJIÑOAREN MUIÑA.**

INDIA'KO "MAHABARATA" LIBURUAK

---

---

---

# LEGE ZARRA KENTZEN

## 3.- ESPARTERO ERREGE-ORDE

### (1841-1843)

---

---

Urte onein inguruan aldakuntzak bein eta barriro egiten dira, batean lege zarra kendu eta bestean ipiñi. Bizkaitarrak sendo agertzen dira beti lege zarraren alde eta españatarrak beti Laterri-legea España osoan bardin betetearen alde.

Maria Kristinak alegiña egin eban lege zarraren alde, baiña erbesteratu egin eban eta Marsellan bizi zan. Andik sarritan agertzen dau Espartero erregeordearen aurkako gorrotoa eta iñoz, ikusiko dogun lez, matxinadea sortu be bai. Bizkaitik eskerrak bialdu eutsoezan lege zarraren alde egin ebanagaitik eta Espartero, ori jakin ebanean, asarre bizitan jarri zan bizkaitarren aurka. Gudaroztea gertatzeko asmoa be izan eban.

Bizkaiko aldunak be sendo egozan euren bidean eta Espartero'ri argi esaten eutsoen lege zarra aintzat artzen ez ba'da, eziña izango dala bizkaiko bakea.

Espartero'k Gomez de la Serna izendatu eban korrejidore baiña gobernatzaillearen eskubideakaz. Barriro asearretu ziran aldunak ori gure foruaren aurka egoalako. Ormaetxe joan zan Madrid'era berba egitera eta epaitegiak lege zarraren arauz ipintea eskatu eutson. Espartero'k, ostera, aduanak mugara ta itxasora eroatea eskatu eban eta Naparran artu eban jokabide ona ipiñi eutson eredu lez. Lege zarretik Laterri-legearen aurka dagoanik ezer ez dala onartuko esan eutson eta korrejidorea epailari izatea zala laterri-legearen aurkako jokabide bat.

1841n. urtean kendu eban betiko Esparterok forubaimena eta lege zar osoa arriskuan izteko bidea izan zan ori, ezelako eragozpen barik Españatarrak curen aginduak sartzen ebezelako. Emen be Espartero gertu agertu zan izkilluetara joteko.

Maria Kristiñak Frantzitik matxinadea gertatu eban eta Espartero'ren aurka jagi ziran 1841n. urtean erregiñea ipinteko, iru ziogaitik: Lege zarra kendu nai ebalako, emen O'Donnell egoan erregiñearen alde. Bigarren

errege-ordetza legearen aurka artu ebelako, eta irugarren erlejioaren aurka jokatzen ebalako. Euskaldunai eta naparrai forua euren esku izango ebala berbea emon eutsen Maria Kristinak. Bilbo'n Espartero'ren lagunak artu eta Orduña'ko mugara croan ebezan. Aldundiko balkoitik itzaldia egin zan.

Emen agertu zan Espartero'ren agindu gogor batera euskaldunen lagunak Frantziara joan bear izan eban, Erregiñearen ondora. Espartero'k ia foru guztiak kendu ebazan, Korrejidore Gobernatzaille-antzekoa ipiñi eban, udalak Españan lez aukeratu bear ziran, Aldundia beste lurraldeetan lez Laterri-legearen barrura satu zan, epailaritza Españakoa langoa ipiñi zan, Aduanak itxasertzera aldatu ziran eta zerga-batzea korrejidorearen ardurapean geratu zan eta izun-ordainkiak be bai. Ez dira aitatzen gudaritza eta zergak.

Olazar'tar Martin'ek

---

---

ZUGAITZAK **BOTA** EZKERO, URA  
TA TXORIAK **BADOAZ**, ZUGATZAK  
SARTU **EZKERO URA** TA TXORIAK  
EKARRI EGITEN DIRA.

R. CORONIU

---

---

— — —

Zorionsua izateko beste batzuk iraintzen dauzana, oneik be zoriontzsunaren billa dabiltzanean, ori ez da sekula izango zorionekoa.

Buda'k

## BAKIOKO EUSKEREAA - 14

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun!

- Oarra: Era bitara dakarguz, esaterako,
- zelan idatzi bear dan: "barrian"
- Bakion zelan esaten dan: "(barridxen)"

## BERBALAPIKOA

"Berbalapiko" berbea, au da, berbadun lapikoa, esaten izan deutsogu ZERen iztegi antzera atondutako berba mardoari. Leengo baten egin genduan lez, oraingo onetan be, geure-geurea dan berbalapiko berezko orren beste zatitxu bat ekarri gura deutsuegu orriotara. Badira Bakio-ko euskeran egunean-egunean erabilten diran berba asko, zer edo agaitik, apur bat aaztuta edo baztertuta lotu diranak. Berbok euskera osoarenak dira izan. Eta euskerearenak diran ezkerro. bertokoak izanda, ganera, edonoganako artuemonetan egunero erabilkeran, euskereari berari mesede andia egingo deutsogu. Ikasi eta zabaldu!

Oarra: Berbea, izena edo izenlaguna izanda, zelan idatzi bear danekoan artikulu barik agertuko dogu: "jaube". Berbori Bakion zelan esaten danekoan, barriz, artikulua-gaz agertuko da, fonetismoari eusteko, atan be: "(dxeubie)".

**abiada** (*abidxedie*) = abiadura.  
**abiada ostean** (*abidxeda ostien*) = txistu bizian, agudo.  
**agirian** (*agiridxen*) = bistan, agerian.  
**antera** (*anterie*) = antzera, molde.  
**antzera** (*antzerie*) = itxura, antz.  
**ardura** (*ardurie*) = axola, arreta.  
**artean** (*artien*) = bitartean, bizkitartean.  
**asti** (*astidxe*) = astialdi, aisia.  
**badaezpadan be** (*badaespadan be*) = zer berta ere.  
**bardin antzean** (*bar-din ant,ien*) = antzera baten.  
**barrian** (*barridxen*) = ostera be, barriro.  
**bear** (*hierra*) = lan.  
**beargin** (*biergiñe*) = langile.  
**bee** (*beie, bie*) = lur, zoru.  
**bearen ganean** (*bienganien, benganien*) = lurtean, zoruuan.  
**bearen ganera** (*bienganera, henganera*) = lurrera, zorura.  
**beintzat** (*beintzat*) = gitxienez, bederen.  
**bien bitartean** (*bidxen bitxartien*) = artean, anartean.  
**eguerdiatean** (*egurdatie*) = eguerdi aurretuan.  
**egundo** (*eguno*) = inoz be ez, sekula.

**eurrez** (*eurres*) = ugari, anitz.  
**ganera** (*ganera*) = ara geiago, alaber.  
**geianean** (*geidxenien*) = geien jota, geienez.  
**gitxienez** (*gitxienes*) = sikan, gutxienik.  
**abia** (*abidxie*) = kabia.  
**edoi** (*edoidxe*) = laino, odei.  
**ondata** (*ondata*) = busti-busti egin, blai egin.  
**ondata** (*ondau*) = birrindu, lats egin.  
**inoz be ez** (*inos bes*) = sekula, egundaino.  
**itxi** (*ixi*) = zarratu, ertsi.  
**jaube** (*dxeubie*) = ugazaba, jabe.  
**jaurtigi** (*dxeurti*) = bota, jaurtiki.  
**ke** (*kie, keie*).  
**laskitu** (*laskitxu*) = ondata, ausi.  
**laskitu** (*laskitxu*) = alperrik galdu.  
**nekez** (*nekes*) = estu eta larri, guztia bearrean.  
**nonon** (*nonon*) = non edo non, nonbait.  
**nonor** (*nonor*) = nor edo nor, norbait.  
**normalean** (*normalien*) = oro ar, normalki.  
**nozik bein** (*nosipein*) = lantzean bein, noizbait.  
**nozoz** (*nosonos*) = noz edo noz, noizbait.  
**oidalango** (*oidalaua, oidalanoa*) = itzelezko, egundoko.  
**ostean** (*ostien*) = osterantzean, bestela.  
**ostean** (*ostien*) = antzean, gibelean.  
**ostean** (*ostien*) = eta gero, ondoren.  
**ostera be** (*ostabere*) = atzera, barriz.  
**oztaz-oztaz** (*ostas-ostas*) = nekez, doi-doi.  
**saskeldo** (*saskeldoa*) = zantar, arlote.  
**sats egin** (*satz ein*) = ausi, apurtu.  
**seguru antzean** (*segurantzien*) = urtean, segur aski.  
**sikan** (*sikan*) = edolabere, ezpere.  
**taket** (*taketa*) = esola, zurkaitz.  
**triskau** (*triskeu*) = birrindu, suntsitu.  
**txantel** (*txantela*) = txartel.  
**ugari** (*ugeri*) = asko, erruz.  
**ugazaba** (*usabie*) = jaube, nagusi.  
**ugazabandra** (*usabandrie*) = jaube, nagusi (andrazkoa).  
**upin** (*l/pifie*) = ipuin, kontu.  
**zaratots** (*saratotza*) = zarata andi, burrundada.  
**zegan?** (*segan?*) = zenbatean?  
**zeoz** (*seoser*) = zer edo zer, zerbait.

# BIZKAIKO EUSKEREA ZUZENTZEN

### NABIL/DIARDUT

Gaztelereak "perifrástica" deritxon aditz joko batzuk erabilten dauz: "estoy leyendo", "ando estudiando". Eta ortik sortu dira bizkaieran ain ugari eta egokiro erabilten diran: "irakurten nago" edo "ikasten nabil". Baiña Iparraldean eta Gipuzkoaren zati baten ez dabe onartu perifrástica ori, frantzeran be ez dagoalako. Frantzeran, gaiñera "estar" aditza ez dauke eta ortik beste arazo batzuk sortzen dira.

Bizkaian "estoy" edo "ando" aditz orreik erabilteko badago aditz egoki bat: "ikasten diardut" edo "irakurten diardut". Eta au gipuzkoeraz be onartzen dabe. Eta gaiñera "ari naiz" dauke. Ondo dago au erabiltea baiña ez neuke esango "nago" eta "nabil" alboratu bear dirala edo txarto dagozela.

Goazen orain "estoy/soy" eta "tengo"/"he" arazoak aztertzeraz: "Gaisoa naz" ala "gaisorik nago"? Bizkaieraz ez dira gauza bardñiak, baiña "estoy" daukagulako. Zelan agertu bereizitasun ori Iparraldean?. "Neuk dot errua" ala "neuk daukat errua"? Biak esaten dira, baiña askoz geiago bigarrena. "Euki" aditz perifrastiko antzeko ori ez dabe ezagutzen Iparraldean.

Bizkaierearentzat era biak onartuko neukez. Lasai berba egin.

Eta, amaitzeko zelan esan Iparraldean: "Ni están todos los que son ni son todos los que están". (Ori zoro-etxe bateko atean ei dago idatzita). Edo beste au, Jon deunaren Barri Onaren asierakoa: "En el principio era la palabra y la palabra estaba junto a Dios y la palabra era Dios". Latiñez dana esaten zan "erat", baiña gaztelerea eta Bizkaiera aberatsagoak dira "estabalegoan" daukelako. Ori gaztelerratik onartu egin bear geunke: "Dagozan guztiak ez dira (zoroak) eta diran guztiak ez dagoz" emen.

### ONEK/ONEIK

Idazteko erreztasun aundia damosku azento edo sakakada-ikurrik ez erabilteak, baiña sarritan esan gura doguna esateko bear izaten da eta beste jokabide batzuk artu bear izaten doguz.

Berba egikeran sakakadeagaz bereizten dogu "onék" batena eta "ónek" askorena. Sakakada ori artzen ez dalako zelan bereiztu? Batena esateko "onek" idazten dogu: "Onek egin dau ori". Askorena danean batzuk "onek" erabilten dabe eta ez da egokia irakurketa gatxagoa dalako. Beste batzuk "oneek" idazten dabe, eta au be egokia da, baiña geienak "oneik" idazten dabe eta neu be azkenengo oneikaz batera nator: "onek ekarri dau ogia eta beste oneik aragia ta ardaa ekarri dabez".

Izen-orde erakusle oneik sarritan agertzen dira eta arau au kontuan artu-bearrekoa da.

### NORK/NOK

Euskereak, batez be Bizkaikoak, berba egikeran izkiak galtzeko oitura aundia ta bildurgarria dau. Nik uste dot %

40 inguru dirala galtzen doguzan izkiak. Esaterako "egin dogu" esateko "inju" esaten da Bizkairik geienean. Zortzi izkitik laura jatsi gara. Eta orregaitik egiten jake ain gatx euskaldun barriai gramatikaz ikasi eta erriko izkerea ulerzea edo giputzai Bizkaiera ulertzea edo berba egitea.

Bide orretatik dator arlo onetan egiten dogun itauna: Zelan idatzi "nork" ala "nok". Erritarrak berba egiten dabenean "nok" esaten dabe eta idazkeran be arau ori artzea esondatzen dot: "Nok irakurten dau idazki au?" eta ez "nork irakurten dau idazki au?".

### ENATOR/EZ NATOR

Aboskeriak edo fonetismoak sarritan agertzen dira, Bizkaian, batez be. Ez dira fonema edo abots osoak alofono edo abots aldatuak baiño. Onek ez dabe aldatzen adierazpena.

Aldakuntza ori aurreko bakartiak (bokalak) edo lagundunak eragiten dau (konsonanteak). Bokalak: "Burue" esaten dogu "burua" idazteko. Lagundunak (konsonanteak): "Orno" izan bear leukena, "txarto" dan lez, "ondo" biurtzen dau.

Olako eragiña dauka "-z" azkenekoak, onek abots bigunak gogortu egiten dauz: "Ez da/ ez ta". Baiña fonetismoak, al dan neurrian kendu egin bear doguz idazten doguean eta "ez da" idatzi beti. Ondo, bai.

Oraingo onetan dakarguna auxe da: "ez noa" ala "enoa", "ez nator" ala "enator".

Esandakoaren arauz, "ez noa" eta "ez nator" idatzi bear geunkez.

### GAZ/KIN

Sarritan esan dogu "batuak" Bizkaiko bereizitasunak alboratu egin dauzala. Oneitariko bat dogu "gaz/kaz" atzizkia: "Gizonagaz/gizonakaz".

Orren orde beti "kin" erabiltea eskatzen dabe. Batzuk badiño "kin" notiñakaz eta "gaz/kaz" gauzakaz erabilteko be.

"Kin" Bizkaiairen zati batzutan erabilten da, batez be Gipuzkoatik ur dagozen lurraldeetan. Baiña sarritan ez da erabilten zuzen: "kin" beti da askorena eta batena danean "rekin" erabili bear da. "Aiztoarekin egoan gizona baiña etsaiak aiztoakin etorri jakozan". Amarekin (bat), gurasoakin (asko).

Baiña "gaz/kaz" bizkaierearen bitxi eder bat da eta ez dogu alboratu bear, naizta noizean bein "kin" erabili.

Idazleren batek "rekin/kin" notiñakaz erabili nai ba leu eta gauzakaz "gaz/kaz", ez litzake jokabide txarra izango.



---



---

# ABIZENAK

---



---

**ARZELUZ:** Batzuk "arze" artea dala diño, beste batzuk, ostera, "artza". Eta "-luz" toki-atzizkia. Orduan, "arteak edo artzak dagozan tokia". Beste batzuk "artza" arriarte dala diño eta "-luz" luzea, orduan "arritza luzea".

Gipuzkoan dago geien zabaldua. (Ataun 1659)

**ARDANTZA:** "Ardan" edo arda bat da eta —tza azkenenok ugaritasuna adierazten dau. Ori orrelan izanik, arda asko artzen dan lekua litzake, baiña beste batzuk "ardan" basarana dala diño.

Abizena Elorriotik urtena izan leiteke, Gipuzkoan be ba-dago. (1776)

**ARETXALDE:** Aritz baten ondoan dagoan luna edo etxea.

Abizen lez Bizkaian geien. (1674)

**AREJITA:** Elorri sortua da eta Gipuzkoara be igaro da. Gernikan be aurkitzen dogu. (Elgoibar-1752)

Jatorria aretxean ei dauko, eta azkenean "-eta", ugari-tasuna agertzeko.

**ARENAZA:** Batzuk "aran"etik datorrela diño, beste batzuk "arena"tik. Azkeneko "-tza" ugaritasuna da.

Bizkaian eta Gipuzkoan agertzen da geien. (Valladolid-1764)

**ARIZPE:** Aritzaren azpian dagon tokia edo etxea da. (Eibar-1575)

Abizena Bizkaian eta Gipuzkoan ugari.

**ARIZTEGI:** Aritz asko dagon tokia esan nai dau eta abizen lez zabal dabil batez be Gipuzkoan. (Onate-1716)

**ARIZMENDI:** Aritzak dagozen mendia, itzak argi diñoan lez eta abizen lez be zabala da Gipuzkoa osoan eta markinaldean. (Donosti-1566)

**ARIZNABARRETA:** Azkenengo "-eta" asko dagon tokia esan nai dau. "Nabar" izan leiteke alkarren ondoan dagozenak eta margoa argia, eta danaren aurrean aritza: Aritz asko eta batuak dagozen tokia.

Gipuzkoan geien, baina Bilbaon be bai. (Soralue-1654)

**ARMENDARIZ:** Naparroan eta Gipuzkoan dago abizen au geien, baiña Bizkaian be ba-dagoz, esaterako Elorri, Ubidean.

Batzuren ustez arri-mendiko aritza litzake. Beste batzuk bedar sikua aitutzen dabe, eta nik latinetik artutako "armentarius" ete dan esango neuke, abere-zaiña litzake. (Legorreta-1664)

**ARMENTIA:** Guztiok ezagutzen dogu Gasteiz-ondoko Prudentzio deunaren jaioterria. Abizena zabaldu egin da eta Kordoban be ba-dago. (Valladolid-1584).

Arri-mendia izan daiteke, baiña ba-diño bedarragaz be zer-ikusia daua.

**ARROZTEGI:** Abizena Bermeo-aldean egoan eta gero Gipuzkoara be zabaldu da.

Arotzaren etxea esan gura da, etxea edo lan-tokia. Lopez Mendizabal'ek danean sartu nai izaten dauz landarak eta emen be bai: orosti edo gorostiak dagozan tokia dala diño. (1537)

**ARSUAGA:** "Artsu" arri asko eta "-aga" azken mugatu ta sendotua da.

Gipuzkoan geien. (Urretxua-1348)

**ARTABE:** Artearen azpian dagoana esan nai dau, baiña "-be" k ugaritasuna esan nai daua be ba-diño.

Dimatik urtena da abizena. (Tolosa-1769)

**ARTARAZ:** Arratian ugari dago abizen au eta lenengo zatia artea dala dirudi, beste zati biak -ar- eta —az zer diran ez dago argi.

**ALTAZUBIAGA:** Arteakaz egindako zubia gogorazten dau eta azkeneko "-aga" mugatzaillea sendotzeko da.

Leniz'ko ibarrean eta Gipuzkoa osoan dago, Bizkaian be bai. (Arrasate-1391)

**ARTEAGA:** Gautegiz errian amargarren gizaldian agertzen da baiña gero Euskalerra osora zabaltzen da. (Elorrio-1570)

Arte dagon lekua esan gura dau.

**ARTETXE:** Beste etxe batzuren artean dagoan etxea ei da baiña Lopez Mendizabalek Arte zugatzagaz alkarzten dau. Ez diño arte-ondoko etxea danik, "etxe" ugari ei da. (Azpeitia-1648)

# ONGI ETORRI, "ARALAR"

## (EUZKADITIK EUZKADI'RA BEGIRA)

### (politika-gaiak)

Atzo, igandez, Ekaiñak 24, bukatu eban "Aralar"ek bere burua "politik-alderdi" biurtzeko egin daun batzarra.

Badogu, beraz, Alderdi berri bat Euskalerrian. Eta ortaz nai dausut itzegin, irakurle.

Baiña gauza bat esan nai dausut aurretik, eta gauza bat eskatu.

-Esan, auxe: Nik politika bat badotala, baiña Alderdirik ez. Politika-jokuan, neretzat aurreneko gauza, nire Eliza da, eta, beeraxeago, nire Euskera. Nire Eliza ukitzen ez daun bitartean, nere Euskeraren alde lanik geiena egiten dauana izango da beti nere Alderdia.

-Eta auxe eskatu: asarreketarik gabeko pakea. Zu eta ni beste ororen gaindik kristauak garan ezker, ibilli gaitezen pakean eta itzegin dagigun pakean: Politikaren arlorra sartze-  
ra goazen ezker edozer gauzetaz itzegiteko ESKUB IDEA badogu-ta.

Zuk Euskalerria Españi'ren barruan euki nai ba'dozu, bejondeizula zuri, ortarako eskubidea badozu ta. Ez duzu, ordea, ortarako indarkeria erabiltzeko eskubiderik. Zuk, alde-  
rantziz, Euskalerria Españi'tik atera nai ba'dozu, bejondeizu-  
la zuri ere, badozu ortarako eskubidea-ta. Baiñan ez dozu zuk ere indarkeria erabiltzeko eskubiderik.

Esaten ari naizen ori, Elizaren dotriña da. Eta, ona nola, ni, politikarik gabeko zuen adiskide au, politikaz itzegitera natorkizuen, apaiz idazle bezala bai bait dot politikalarie ere politikabide zuzenaz itzegiteko eskubidea. Eta bearkizuna!

Alderdi berri bat sortu jaku Euskalerrian: "Aralar".

Izen polita da Aralar, Euskalerrianen biotza ba'litz bezala, Euskalerrianen erdian dagoan mendi maitagarriaren izena.

¿Onuragarria ote jaku "Aralar"en sorkuntza? Nere ustez, bai. Orregaitik biotz-biotzez damaiot nere ongietorria. Zergaitik? Indarkeriaren aurka datorrelako. Ikusi dot nik, Tolosan, nere gelako ogean etziñik, buru-atzetik ETA'k sartu yakon balak, irtetzean, bekokian iriki eutsan zulo ikaragarria agirian ebala, nere arrobaren senarra, nik anaia bezala maite neban gizona, nere etxean danok maite genduana, eta batez ere nere ama Beñite'k semea bezala maite ebana. Eta beste iñork bere etxean orrelakorik ikusi bearrean aurkitzerik ez neuke iñolaz ere nai.

"Ni ez noa ETA'koek gaitzestera. Ni ETA'koen ekintzak gaitzestera noa", esan dau Patxi Zabaleta'k, Alderdi berriaren Lendakariak. Ederki Patxi. Sartu azen bide berri ortatik zintzo ibiltzeko Jainkoak emongo al dua oparo argirik ugari!!!

Nik "Naparroa'ko Egunkaria"ren orri ontan baiño gogor-  
rango ez diat uste iñork idatzi dauanik. Agian gure gotzaiek beren azkeneko Pastorealean. Baiña nik ez joat sekulan

ETA'korik gaitzetsi, ezta gotzaiek ere. Ori ez bait dok gure lana. Nik, eta gotzaiek, ETA'ren ilketa nazkagarriak gaitzetsi joguzak.

Esan joat baitare, Patxi, azkeneko auteskundeetan EAJ'ra joan zoazenak bildu ni dozakela. Ori ez jatak ain atsegiña gertatu. Sinistu eidak. Nik ez joat, apaiz bezala, Alderdirik, ez EAJ'rik ez beste iñortxorik. Baiña, Patxi!, EAJ'ra joan ziren oiek, arrezkero, indarkeriaren aurka jagozak. Oroi, Patxi, beirazko ontzi polittetan igeri ibiltzen diran arraitxo pollit aiek. Ontzi oietan arrantzan asteak ez jok, Patxi. batere meriturik. Bá, ik esandako ori, "arrain-ontzian arrantzu egin" nai izatea dala iduritzen yatak.

Ire lana, beste ertzeko jendeen artean jagok. Jende asko dok "Batasuna"n. zalantzan dabillena. Oiek irabazi bear dozak. Kale bazterretan agertzen dok oraindik "Gora ETA Militarra". Orrek ez jok balio aundirik. Ori nork idazten jokan ez bait zekiaguk. Baiña jende asko jagok oraindik ETA'ren ekintza makurra bearrezkoa dala uste jokena. Oiek dozak ire Alderdi paketsura ekarri bear dozakenak. Eta, zaillagoa, dana: ETA'ko pistolari beraiei ere oker dabiltzela sinistraeraztea ire lana dok. Lan zaina. Baña beste iñork egin ez jaikena. Patxi: ez dok arritzekoa-ta. ontara ezker. ETA'k, iri, Españi'ko ertzain guztiei beño bildur geiago dua. Ez dok, eztare, arritzekoa-ta, baleikek ETA'k iretzako bala, pistolan gerturik eukitzea: Yoyes il eban balaren kidea. Ori gertatuko ba'litz, Patxi, izugarria izango leitekek nere biotzeko samiña. Nere oitotzik minduenak eta samurrenak iretzat izango litzakezak.

Besarkada aundi bat, Patxi, eta ez jaik Aralar'ko Goiáin-geruaren laguntzarik peitu.

Latiegi'tar Bixente 945 220050

**ZEUK NAI EZ DOZUNA, EZ EZARRI  
BESTE BATZUI GOITIK BEERA.**

KONFUNZI'OK

Iru gauza dagoz eskutatuz-eziñak: maitasuna, keea eta ganbelu-gaiñean doan gizona.

**Arabiarren atsotitza**

Euskeraren batasuna. euskaldun-bakoitzak bere Euskera ondo ezagutzea eta beste Euskerak erre ulertzea da. Eta, ortara-  
ko bide bat dala uste dodalako, nik idazki-sorta ontan gipuzkeraz idatziko dot baiña bizkaierazko aditza erabilliz.

## PELOTARIAK

Artea, jakituria, jolasa alkarren lagun aundiak dira. Giza semeak sortzetik artu ditu gai ta almen eder onek. Berezkoak dira, beraz, gizonaren ta gizadiaren bizitza artekotasunez, ondo, joan al izan dedin. Almen onek giza-diari emon eutsezanak, ondo, orniduta itzi eban, bizitz eder bat zuzentasunez ta alaitasunez egin al izan egian.

Gure erriaren gauz bi aitatuko ditugu lantxo onetan, gure pelotariak eta euren izkunta ederra.

Pelotarien arteko erritarra naz. Ta suberte onegaz ez naz lotsatuten, poztu egiten naz. Jaiotzaz, auzoan bertan, ezagutu izan nebazan gizandi izan diran zesta puntako pelotariak Marzelino Bereziartua, Gonzalo Larruskain, Segundo Zelaia, Txutxo Larrainaga ta abar... Gizon oneik euren gazte aroan, pelota kultura bidez, Euskalerrria agertu eben munduan zear: Kuban, Mejikon, Txinan, Italian, Ipar Ameriketara eta abar. Gizon oneik ondo goralduta eben euren jatorria: munduko pelota-toki ospetsuenetan ibili zan ta dabil gure pelota-artea ta izkuntza zoragarria.

Biok dira jatorrak, biok dira ederrak. Pelota jolasaren bidez euskaldun gazteak Euskalerrriaren izena ta izana agertu zituen pelota-tokitik pelota-tokira munduan: Gizontasuna, egizalesuna, ta euskaldun askorekin batean, gure erriaren izateko zentzuna zabaldu eben lurraren egaletan.

Ori dala-ta, antxe dago munduaren egal askotan euskaldunaren izaera zentzunez ta gizontasunez oiñarrituta. Gaur egunean be, batean bestean, zentzun ederdun euzko pelotari asko dabil mundu zabalean. Zorionak euzko pelotari orrei, batetik zuen izana zaintzen dozuelako, bestetik zeuen sorterriak ondo merezi daualako bere nortasunaren izen ederra.

Nik, emen, aitatu nai neukena da Allustiar gazte jator bat. Bein baten, zesta-puntaz, nor-geiagoka egikeran nagusi urten ta telebistara croan ebena. Izarrak ortzian dizdiz egiten dau. Ta olako gazte eder baten izarrak ikustea, benetan zoragarria da, euskaldun pelotariaren giroa gogoratzea ederra dan legez.

Izar guztiak ez dira bardiñak. batzuk aundiagoak ta beste batzuk txikiagoak ta bakoitzak emoten dau bere almenaren eran argitasuna, ta giza semeak be alantze dira, bakoitzak artu ta landu dituan almenen eran, argi egiten dabe munduaren aurrean. Gure Iñakik, emen ikusiko dogunez, almen ederrak artu izan ditu ta Allustiar jator bateri dagokion eran, onartu ta landu ditu, sortzetz artu izan dituan almen bikain orreik.

Au ez diñot neurez bakarrik, beste askoren eritxi ederra, bardiña izan da ta Euzkitzek bere egia autortu nai ba dau, olantxe egon zan gozatsu, barrez barrez, pozik entzuten. Izan be euskeraren jakituri, berezitasun ta edertasunak munduko elerti-zale jakintsuak arritula itzi izan ditu beti.

Ta ona emen, pelotari mutil gaztea Bizkaierazko izkuntzan literatur onenaren antzera, ezereen bildurrik gabe, gaztedi guztiaren eredu bikain jarteko eran ikusi genduan. Izkuntza akats barik josi eban, berbea aozkatu euskal sen gozoenagaz, ta euskera, bere ederra, izlari edo idazlari prestu batek egin leiken era ederrekoa.

PAULIN



## OTO TA POTOTO

Oto baserritarra baño kale-umea geiago zan.

Kele ertzean zuten etxea.

Etxea, edo...

Ermita batean bizi ziran.

Ermitak baeban etxe-bizitatxo bat eta antxe jaio eta azi zitzaigun gure Oto jauna.

Oto'ren aita Bartolo zan ermita orren zaintzaille.

Santuak bazuan kutxa txiki bat bere irudiakin, eta ura artuta, erririk erri ibilli oi zan Santuarentzat dirua biltzen... -Santuarentzat? Bai, bai... Leku ederrean zegok...! Santuak ez dik jaten! Alan diardu Bartolo'ren aurrean, auzoko Pantaleon'ek.

Baña, gauz orretan oker ebillen Pantaleon: Bartolo zintzoa zan eta ermitak baebazan beure gastuak he... Tarteka txakur aundiren bat artuko ebalta, txikito bat erateko?

Ori be Ieikiena da. Ez goaz ukatzera; bañan. Pantaleon oker ebillen.






kultura  
sortzen dogu



kultura



kultura

BILBAO 700 • III MILLENIUM

Sormena bultzatzen dogu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, barriak eta klasikoak, bear-bearrezkoak.

Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.

Au da gure kultura.

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

200 pezeta (1,20 Euro)

**bbk<sup>2</sup>**